



## UNITATEAREN HASIERAKO JARDUERA

<b>Denbormalizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Arbela
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Unitateetan zehar egin beharko duten lana zein izango den aurkeztea.</li><li>• Ikasgelako ikasleen artean Lurrari buruzko aurrezagutzak jakitea.</li></ul>

Irakasleak gaiaren inguruko aurkezpen laburra egingo du: Zertaz arituko gara? Zein izango da helburua?

Segidan, irakasleak, saio honetan eta sekuentzian zehar egingo dena azalduko du, unitateko helburua zein den azaltzearekin batera. Lanketa hau egiteko hiru fase bereiziko dira, eta fase horietako bakoitzean jarduera desberdinak burutuko dira.

Hasierako fase hau bidaiatzearen inguruan eta lan egingo duten kontinentearen inguruan ikasleek dituzten aurre ezagutzak zein diren ikusteko izango da baliagarria. Honekin batera, sekuentzian zehar egingo den lana zein izango den azalduko zaie ikasleei: lurralde bakoitzeko berezitasunak ikasi beharko dituzte musika eta dantzak oinarri hartuta.

Garapen fasean, azken lan edo produktu hori osatu eta sortzeko baliagarriak izango zaizkien ezagutzak eskuratuko dituzte, egokituko zaien kontinenteari dagozkionak. Lan guzti hau taldean egingo dute, eta horrela antolatuko dira lan egin ahal izateko. Asmoa, herrialde ezberdinak ezagutzea izango da. Amaierako fasea egindako guztia erreparasatzeko baliagarria izango da ikasleentzat.

Hasteko, webbunean aurkituko duten lehen bideo-sarrera ikusiko dute, unitateari hasiera emango diona. Ondoren, ikasleek, taldetan, galdera batzuk erantzun beharko dituzte:

- Ba al dakizue zenbat kontinente dituen gure Lurrak?
- Kontinente hauetakoren baten izena ba al dakizue?



- Gu zein kontinentetan bizi gara?
- Zenbat ozeano daude gure Lurrean?
- Ozeano hauetakoren baten izena ba al dakizue?

Denbora tarte bat utzi ondoren, (5-10 minutu) gela handian aipatuko dira atera diren erantzunak eta arbelean idatzi. Ariketa honen bitartez ikusiko dute zenbat dakiten Lurrari buruz. Hausnarketa hau aprobetxatuta, proiektuan zehar egingo dena azalduko da, hau da, egin beharko dituzten jarduera ezberdinak eta baita prozedura ere.

Taldekatzeari dagokionez, talde bakoitzak kontinente bat landu beharko du. Denborari buruz, berriz, hiruhileko oso batean egiteko pentsatuta dagoela eta ebaluazio irizpide nagusia ebaluazio jarraian oinarrituko dela aipatuko zaie.